

## CONSONNI ARGITALETXEA ARGITARATZE- BANAKETAREN KOORDINAZIORAKO PERTSONA BATEN BILA ARI DA

consonni Bilbon kokatutako argitaletxe eta kultura-espazio independentea da, 1996. urteaz geroztik arte-ekoizpenean lanean ari dena, eta, berrikiago, edizio lanetan. [www.consonni.org](http://www.consonni.org) Irudiaren garaian, hitzaren aldeko apustua egiten dugu consonni-tik, kultura kritikoaren difusiorako erreminta gisa.

### **Lanpostuaren deskribapena:**

*Urteko soldata gordina: 11.000 €*

*2018ko azaroan hasteko.*

Lanaldi erdirako pertsona baten bila ari gara, 4 ordu egunean (luzatzeko aukerarekin), consonni-ko lantaldearekin batera honako lanetan kolaboratu, babes eman eta, kasu batzuetan, koordinatzeko gogoia daukana:

- consonni argitaletxeko edizio inprimatuen eta eduki digitalen banaketa eta komertzializazioa:
  - Kontaktua liburu-saltzaile eta liburuzainekin (posta elektronikoa, telefonoa, bisita presentzialak...)
  - Egungo salmenta-puntuaren sendotzea eta puntu berrien bilaketa, bai fisikoak (liburu-dendak, liburutegiak...), eta bai sarean (kobo, etab.)
  - Online salmentaren kudeaketa [consonni.org](http://consonni.org) webgunearen bitartez, eta salmenta horren hobekuntza
  - Liburu, ebook eta audioliburuaren salmentaren kudeaketa
  - Likidazioen kontrola
- Nazioarteko banaketaren zabaltzea eta hobetzea
- Finantziario-estrategia berrien proposamena (mezenasgoa, babesak) eta harpidetza editorialaren kanpainaren garapena eta hobekuntza
- Laguntza sare sozialetako eta hedabideetako komunikazioan, edizioei dagokienez:
  - Komunikatuen eta prentsa-oharren idazketa
  - Komunikazio-estrategien garapena
  - Laguntza sare sozialetako hedapenean

### **Baloratuko diren gaitasun eta ezagutzak:**

- Prestakuntza humanitate eta letretan
- Prestakuntza marketin digitalean
- Prestakuntza gestio kulturean
- Ibilbidea argitaratze-banaketan
- Liburuaren munduaren ezagutza komunitateari eta eduki literarioei dagokienez, merkatutik haratago
- Liburu, ebook eta audioliburuaren merkatuaren ezagutza Espainian eta Latinoamerikan
- Esperientzia proiektu kooperatibistetan eta ekonomia sozial eta solidariokoetan
- Esperientzia sare sozialen kudeaketan
- Praktika artistikoekiko interesa
- Ingeles maila altua
- Euskararen ezagutza
- Taldean lan egiteko gaitasuna

**CVak jasotzeko, [cv@consonni.org](mailto:cv@consonni.org) helbidean edo postaz, Conde Mirasol kalea 13 LJ1D, 48003 - Bilbo, 2018ko urriaren 25era arte (osteguna).**